bizilekuko udalean berritu beharko da txartela. Nolanahi ere, indarraldia galtzea ekar dezaketen hainbat aldaketa egon daitezke desgaitasun-maila baloratzean. Txartela berritzeko, dekretu honen 10. artikuluan aurreikusitako prozesuari helduko zaio.

2.- Balorazio- eta -orientazio-unitateek emandako irizpena behin betikoa den kasuetan, parte interesdunak eskatuta hasiko da txartela berritzeko administrazio-prozedura, eta ez da beharko aipatu balorazio-unitateen beste irizpenik, salbu eta udalek berariaz halakorik eskatzen duten kasuetan.

3.- Aparkatzeko txartela berritzeko eskaera indarraldi-epean aurkezten bada, aurretiaz emandako baliozkotasuna luzatuko da prozedura suntsiarazi arte. Emandako azken txartelaren indarraldia amaitu eta ondorengo laurogeita hamar egun naturaleko epearen baitan aurkezten bada eskaera, oraindik ere indarrean dagoela ulertuko da, harik eta berritzeko prozedura suntsiarazten den arte.

4.- Hala, aparkatzeko txartela berritzeko, ezinbestekoa da titularrak txartela emateko beharrezkoak ziren baldintzei eustea.

## **II. KAPITULUA. APARKALEKU-TXARTELEN EZAUGARRIAK, ERABILERA-BALDINTZAK ETA FUNTZIONAMENDUA**

### **6.artikulua.- *Aparkaleku-txartelaren ezaugarriak.***

Txartelaren ezaugarriak zehaztuta daude desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela arautzen duen martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuaren I.Eranskinean.

### **7.artikulua.- *Erabilera-baldintzak.***

1.- Txartela pertsonala eta besterenezina izango da, mugikortasun urriko pertsona

deberá renovarse en el Ayuntamiento del lugar de residencia de la persona titular, sin perjuicio de los cambios que pudieran producirse en la valoración de su discapacidad, que conlleven la pérdida de su vigencia. Para la renovación se seguirá el mismo proceso previsto en el artículo 10 del presente Decreto.

2.- En los casos en los que el dictamen emitido por las Unidades de Valoración y Orientación tenga carácter definitivo, el procedimiento administrativo para la renovación de la tarjeta se iniciará a petición de la parte

interesada sin necesidad de exigir un nuevo dictamen de dichas Unidades de Valoración, salvo en aquellos casos en que los

ayuntamientos expresamente lo soliciten.

3.- La presentación de la solicitud de renovación de la tarjeta de estacionamiento dentro del plazo de vigencia, prorrogada la validez de la emitida anteriormente hasta la resolución del procedimiento. En caso de que la solicitud se presente dentro de los noventa días naturales posteriores a la fecha en que haya finalizado la vigencia de la última tarjeta emitida, se entenderá que subsiste dicha vigencia hasta la resolución del correspondiente procedimiento de renovación.

4.- En todo caso, para renovar la tarjeta de estacionamiento es imprescindible que la persona titular mantenga los requisitos exigidos para su otorgamiento.

## **CAPÍTULO II. CARACTERÍSTICAS, CODICIONES DE USO Y FUNCIONAMIENTO DE LA TARJETA**

### ***Artículo 6.- Características de la tarjeta de estacionamiento.***

Las características de la tarjeta de estacionamiento son las definidas en el Anexo I del Decreto 50/2016, de 22 de marzo, por el que se regula la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad.

### ***Artículo 7.- Condiciones de uso.***

1.- La tarjeta tiene carácter personal e intransferible, siendo su titular la persona



**SORALUZETIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

izango da txartel-titularra, eta bakarrik erabili ahal izango da titularrak berak bidaiatzen duenean-gidari gisa zein bidaiari gisa-bera jabetzako ibilgailuaetan edo bera garraiatzeko erabil daitekeen beste edozei ibilgailutan.

2.- Aparkaleku-txartela, jatorrizkoa betiere, aurreko parabrisean jarriko da, txartelaren gainaldea (txartel-zenbakia eta iraungitze-data agertzen den alde) ibilgailuaren kanpotik irakurtzeko moduan. Eta agerian utziko da kontrolatu ahal izateko, eskumena duten agintaritz-agenteei behar izango balute ere.

Inolaz ere ezin izango da erabili aparkaleku-txartelen kopiari.

Aparkaleku-txartelen kopiak erabiltzeak ez du inolako balio ofizialik izango; horrenbestez, ulertuko da fotokopia horiek dituen ibilgailuak ez duela beharrek baimenik eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera jardungo da haren aurka.

3.- Seinaleztatutako lekuetan aparkatzeko balio izango du, eta baita aparkatzea debekatua dagoan lekuetan ere behar-beharrezkoa duten denborarako, honako salbuespen hauekin:

-Oinezkoentzako eremuak, nasak edo espaloiak eta oinezkoentzako pasabideak.

-Gelditzea debekatuta dagoen lekuek.

-Ibi-pasabideak edo larrialdiko irtenbideak oztopatuko lituzketen lekuek.

-Zirkulazio-lerroak murriztuko lituzketen esparrua.

Ordutegi mugatua duten aparkalekuetan aparkatzeari dagokionean, berriz, aparkamendua arautzeko udal zerbitzuari buruzko Ordenantzak xedatutakoa bete beharko da.

4.- Aurreko ordenantza horrek aparkaleku-txartelaren titularrentzat zehazten dituen eskubideak bakarrik onartuko dira baldin eta txartela Europako Batasuneko eredu honetara egokitzen bada: Europako

con movilidad reducida y sólo podrá ser utilizada cuando el titular viaje, bien como conductor o como acompañante en vehículos de su propiedad o en cualquier otro mientras sea empleado para su transporte.

2.- La tarjeta de estacionamiento, siempre documento original, se colocará en el parabrisas delantero, de modo que su anverso (donde consta el número de tarjeta y fecha de caducidad) sea legible desde el exterior del vehículo, y se expondrá para su control, si los agentes de la autoridad competente así lo requieren.

En ningún caso se permite el uso de copias de tarjetas de estacionamiento.

El uso de copias de tarjetas de estacionamiento no poseerá ningún valor oficial, por lo que se entenderá que el vehículo con estas fotocopias no posee tal autorización, y por consiguiente se actuará contra él según la legislación vigente.

3.- Será válida para estacionar en los lugares señalizados al efecto e incluso en los lugares de estacionamiento prohibido durante el tiempo indispensable y con las siguientes excepciones:

-Zonas peatonales, andenes o aceras y pasos de peatones.

-En prohibición de parada.

-Lugares que obstruyan vados o salidas de emergencia.

-Espacios que reduzcan carriles de circulación.

En cuanto a los estacionamientos en las zonas de estacionamiento con limitación horaria, se dará cumplimiento a lo que disponga la ordenanza del servicio municipal de estacionamiento regulado.

4.- Los derechos especificados en la presente ordenanza para las personas titulares de la tarjeta de estacionamiento, solamente serán reconocidos para las tarjetas que se ajusten al modelo

Batasuneko Kontseiluak Gomendaturiko 98/376/CE eredua, 1998ko ekainaren 4koa.

5.- Aparkaleku-txartelaren titularren betebehara izango da txartela garbi eta egoera egokian eduki eta zaintzea, txartelean idatzitako datu espezifikoak uneoro ikusi ahal izateko moduan.

6.- Txartelak ez du baliorik izango baldin eta oinarritzko daturen bat irakurri ezin bada.

### **8.artikulua.- Funtzionamendua.**

1.- Aparkaleku-txartelaren titularrek Udalari jakinarazi beharko diote, gehienez ere hamabost eguneko epean, hura emateko arrazoi izan ziren baldintzak aldatzen badira, edo txartela galdu, lapurtu edo hondatzen bada.

Era berean, aparkaleku-txartelaren titularren heriotza gertatuz gero, epe horret barruan titularren sendikoek edo ordeskariak jakinarazi beharko dute, eta txartela entregatu.

2.- Txartela galdu, lapurtu edo hondatzen bada, txartelaren titularrei emandako eskubideak ezin izango dira erabili berria egiten ez zen bitartean.

Txartel berri bat eskatzeko orduan, Ordenantza honetako 5-3 artikuluan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

3.- Iraungitako txartel oro baliogabea da ondorio guztietarako.

## **BIGARREN TITULUA. APARKALEKU-ERRESERBA BEREZIAK**

### **9. artikulua.- Mugikortasun urriko pertsonentzako aparkaleku-erreserba bereziak sortzea eta mota desberdinak.**

Erabilera orokorreko erreserbak:

1.- Hiri inguruko irisgarritasuna errazteko,

recomendado por el consejo de la unión Europea, 98/376/CE, de fecha 4 de junio de 1998.

5.- Es obligación del titular de la tarjeta de estacionamiento el mantenimiento y cuidado de la misma en adecuadas condiciones de limpieza y estado, que conlleve en todo instante la visibilidad de los datos específicos inscritos en la tarjeta.

6.- No serán validas las tarjetas ilegibles en alguno de sus datos.

### **Artículo 8.- Funcionamiento.**

1.- Las personas titulares de la tarjeta de estacionamiento deberán comunicar al Ayuntamiento en el plazo máximo de quince días, cualquier variación de las circunstancias que motivaron su concesión, así como en su caso, la pérdida, robo y destrucción de la misma.

Igualmente los familiares o representantes de las personas titulares deberán comunicar en dicho plazo el fallecimiento del titular de la tarjeta de estacionamiento y entregar la tarjeta.

2.- En caso de pérdida, robo o destrucción de la tarjeta, no se podrá hacer uso de los derechos reconocidos a los titulares hasta la expedición de la nueva.

La petición de una nueva tarjeta se realizará según lo dispuesto en el artículo 5-3 de esta ordenanza.

3.- Toda tarjeta caducada es nula a todos los efectos.

## **TÍTULO SEGUNDO. LAS RESERVAS ESPECIALES DE ESTACIONAMIENTO**

### **Artículo 9.- La creación y tipos de reservas especiales de estacionamiento para personas con movilidad reducida.**

Reservas de uso general:

1.- Con el objeto de facilitar la



**SORALUZeko UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

Udalak aparkaleku-plaza batzuk sortuko ditu mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuek soilik erabiltzeko, betiere pertsona horiek Aparkaleku Txartelaren titularrak direnean; hori guztia Irisgarritasuna Sustatzeko Legeari jarraituz eta lege hori garatzeko hiri inguruan, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko araudiaren arabera egin behar da.

2.- Plaza horiek oinezkoentzako ibilbideetatik eta hiriko eraikin eta zerbitzu publikoen sarbideetatik gertu sortuko dira.

Erabilera izenduneko erreserbak Udalak, honetarako arrazoiak daudenean eta modu diskrezionalean, ondoko aparkaleku-plaza erreserbatuen mota hauek sortu ahal izango ditu, betiere izendunak eta behar bezala seinaleztatuak, aparkaleku-txartelen titularrak diren eta mugikortasun murriztua duten pertsona ezinduen ibilgailuetarako:

a).- **PERTSONALIZATUAK.** Mugikortasun urriko pertsona horrek soilik aparkatzeko seinalatutako plazak dira.

Plaza eman ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Ibilgailuaren titularra izateaz gain, horren gidaria ere izatea
- Gida-baimena indarrean izatea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Balorazio eta Orientazio Unitateak emandako irizpenean, mugikortasun—baremoan A, B edo C maila eta gutxienez 10 puntu aitortuak izatea.
- Familia-unitateak ez izatea irisgarritasun-baldintza egokiak dituen garaje-plaza edo aparkaleku-plaza bateko erabilera pribatiborik.
- Soraluzen erroldatuta egotea eta benetan bertan bizi izatea.
- Erreserba lantokitik gertu eskatzen badu, benetan erreserba eskatzen den tokian lan egiten duela egiaztatzea.

accesibilidad al entorno urbano, el Ayuntamiento procederá a la creación de plazas de estacionamiento reservadas para uso exclusivo de los vehículos que transporten personas con movilidad reducida titulares de Tarjetas de Estacionamiento, según lo dispuesto en la ley para la Promoción de la Accesibilidad y en su normativa de desarrollo sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

2.- La creación de estas plazas se realizará con especial atención en la cercanía de los itinerarios peatonales y de los accesos a edificios y servicios públicos del municipio.

Reservas de uso nominal.

El Ayuntamiento, de forma motivada y discrecional, podrá crear los siguientes tipos de plazas de estacionamiento reservado, de carácter nominal y señalizado para vehículos pertenecientes a personas con discapacidad en situación de movilidad reducida titulares de tarjetas de estacionamiento:

a).- **PERSONALIZADAS.** Serán aquellas plazas señalizadas para estacionamiento exclusivo de la persona con movilidad reducida.

Se deberán de cumplir los siguientes requisitos para su otorgamiento:

- Ser además de titular del vehículo, conductor del mismo.
- Tener en vigor el carnet de conducir.
- Tener reconocido el grado A,B o C y al menos 10 puntos en el baremo de movilidad en el dictamen emitido por la Unidad de valoración y Orientación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- No disponer la unidad familiar de plaza de garaje o plaza de estacionamiento de uso privativo con adecuadas condiciones de accesibilidad.
- Estar empadronado en Soraluze y residir efectivamente en el municipio.
- Caso de que solicite la reserva cerca de su lugar de trabajo, acreditar que efectivamente trabaja donde solicita la



-Ibilgailua Soraluzean helbideratuta egotea, edo bestela, enpresa-ibilgailua dela eta eskatzailearen erabilera eskusiborako dela ziurtatzea.

Pertsona bakoitzeko plaza pertsonalizatu bakar bat emango da. Ahaleginak egingo dira eskatutako plaza ahalik eta gertuen egon dadin helbidetik edo lantokitik-eskatzailearen interesaren arabera-.

b).- MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONAK ERAMATEKO ZERBITZUETARAKO PLAZAK:  
Berariaz mugikortasun urriko pertsonak eraman eta ekartzen ibiltzen diren ibilgailuentzako aparkaleku plaza sortu ahal izango dira, horien harrera zentroetan (eguneko zentroak, 3. adineko egoitzak, eta abar). Erreserba ematea erabakiz gero, emateko ebazpen horretan bertan xadatuko dira erreserba emateko baldintzak.

### **10.artikulua.- Erabilera izenduneko erreserba bereziak emateko prozedura.**

1.- Erabilera izenduneko erreserba berezi pertsonalizatu baten espedientea hastreko, inprimaki normalizatuaren bidezko eskaera bat aurkeztu beharko du pertsona interesatuak, edo haren legezko ordezkariak, edo-Foru Administrazioaren aurrean egin beharreko Jarduketan Nortasuna eta Ordezkaritza Egiaztatzea arauten duen 40/2006 Foru Dekretuak 6.artikuluaren eta hurrengoetan aurreikusitako egoeretan-borondatezko ordezkariak.

Eskaerarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

-Eskatzailearen NAN agiriaren fotokopia, eta baita ordezkariarena ere, horrela badagokio.

-Balorazio eta Orientazio Unitateak emandako irizpen derrigorrezkoa eta loteslea.

-Ibilgailuaren zirkulazioko baimena-bertan

reserva.

-El vehículo deberá estar domiciliado en Soraluze, excepto en aquellos casos en que quede acreditado que se trata de un vehículo de empresa y para uso exclusivo de la persona solicitante.

Sólo se otorgará una única plaza personalizada por persona. Se procurará ubicar dicha plaza lo más cerca posible del domicilio o del lugar de trabajo, conforme a los intereses de la persona solicitante.

b).- PLAZAS PARA SERVICIOS DEDICADOS AL TRASLADO DE PERSONAS CON MOVILIDAD REDUCIDA: Se podrán crear plazas de estacionamiento que se dediquen de modo específico al traslado de personas con movilidad reducida, en los centros de acogida de estos (centros de día, residencia 3ª edad, etc.). Si se acordara la concesión, en la resolución de concesión se fijarán las condiciones de la concesión de la reserva.

### **Artículo, 10.- Procedimiento para la concesión de las reservas especiales de uso nominal personalizadas.**

1.- El expediente para la concesión de reservas especiales de uso nominal personalizadas se iniciará a solicitud de la persona interesada o de su representante legal, sin perjuicio de la representación voluntaria admitida en los términos previstos en los artículos 6 y siguientes del Decreto Foral 40/2006, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral, mediante impreso normalizado.

Las solicitudes se presentarán acompañadas de la siguiente documentación:

-Fotocopia del D.N.I. de la persona solicitante y en su caso de su representante.

-Dictamen preceptivo y vinculante de la Unidad de Valoración y Orientación.

-Permiso de circulación del vehículo, en el



**SORALUZeko UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

jasota azaldu beharko da ibilgailu pertsona interesatuaren izenean dagoela erregistratuta-eta pertsona interesatuaren gida-baimena.

-Pertsona horrek lan egiten dueneko enpresaren ziurtagiria; bertan, kontratuaren ezaugarriak azaldu beharko dira.

2.- Erreserba berezi hauek emateko, era fidagarrian egiaztatuko da mugikortasun urriko pertsona Soraluzen erroldatuta dagoela, eta jakinarazitako helbide horretan benetan bizi dela edo erreserba eskatu duen tokian egiten duela lan; egiaztatu egingo da, halaber, familia-unitateak ez daukala higiezinetan irisgarritasun-baldintza egokiak dituen garaje plazarik, edo, higiezinan nahiz gertuan, erabilera pribatiboko aparkaleku-plazarik.

Ondorio hauetarako ulertuko da familia-unitatea dela mugikortasun urriko pertsonarekin batera erroldatuta dauden pertsona guztiak.

3.- Eskaera Gizarte Zerbitzuek aztertuko dute eta ondoren proposamen bat egingo diote Alkatezari edo Alkatezaz eskuordetza eman dion organori.

Eskaeraren gainekko ebazpena interesatuari jakinaraziko zaio gehienez ere 3 hilabeteko epean, betiere erabilera izenduneko erreserba berezirako eskaria eta beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu den egunetik kontatzen hasita. Epe horretan ez bada berariazko erabakirik hartzen eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

Eskumena duen udal zerbitzuari ere jakinaraziko zaio ebazpena, dagokion txostena egin dezan mugikortasun urriko pertsonaren helbidetik hurbilen dagoen eremuan egokien ikusten den lekua inguruan-irrigarritasun irizpidetik kontuan harturik, besteak beste-. Nolanahi ere, aparkaleku-plaza bat zehatz kokatzeko, udalak mugikortasun urriko pertsonaren beharrak aztertuko ditu, hirigintza-

que deberá de constar que está registrado a nombre de la persona interesada, así como el carnet de conducir de la persona interesada.

-Certificado de la empresa en la que trabaje, en el que conste las características del contrato.

2.- Para la concesión de estas reservas especiales se comprobará que quede acreditado fehacientemente el empadronamiento en Soraluze, además de la residencia efectiva de la persona con movilidad reducida en el domicilio comunicado y que trabaja en el lugar que se solicita la reserva, así como el hecho de no disponer la unidad familiar de plaza de garaje en inmuebles o plazas de estacionamiento de uso privativo en el inmueble o en sus cercanías con las adecuadas condiciones de accesibilidad.

A estos efectos, se entenderá que conforman la unidad familiar, todas las personas empadronadas junto con la persona con movilidad reducida.

3.- La solicitud será estudiada por los Servicios Sociales que efectuarán una propuesta a la Alcaldía u órgano en que esta delegue.

La resolución de la solicitud del interesado será notificada al mismo en el plazo de 3 meses, a partir de la fecha de solicitud de la reserva especial de uso nominal personalizada, acompañada de toda la documentación precisa. En el caso de que no recayera resolución expresa en dicho plazo, deberá entenderse desestimada.

También se comunicará dicha resolución al servicio municipal competente que emitirá el correspondiente informe sobre el lugar, que siendo mas próximo al domicilio de la persona con discapacidad, se considere adecuado, en atención entre otros a criterios de accesibilidad. En cualquier caso, para la ubicación concreta de la plaza de estacionamiento el Ayuntamiento

eskakizunekin eta trafiko beharrekin bat eginik.

Txosten horri jarraituz, Udalak plaza seinaleztatuko du. Seinaeztapen horren kostua Udalaren kontu izango da. Ondorengo aldaketak, ordea, erreserbaren titularraren kontu izango dira.

4.- Erreserba Alkatetzaren Ebazpenaren bidez emango da bost urterako gehienez; eta berritu egin beharko da epe hori bukatzen denean, erreserbaren titularraren elbarritasun-maila adatzen denean edo/eta gida baimena iraungitzen edo baliogabetzen denean.

Berritzeko eskaerak erreserbaren irungitze-data baino gutxienez hiru hilabete lehenago aurkeztu behar dira.

Erreserbaren titularrek, Udalari jakinarazi beharko diote, gehienez ere hamabost eguneko epean, hura emateko arrazoi izan ziren baldintzak aldatzen badira,

5.- Udalak datu-base batean jasoko ditu aparkaleku erreserba bereziak eman edo gaitzesten, berritu edo baliogabetzen duten ebazpenak; eta datu-base horren edukia datu pertsonalen tratamenduaren alorrean indarrean dagoen araudiaren arabera babestuko da.

### **11.artikulua.- Erreserba berezien erabilerarako eta funtzionamendurako baldintzak.**

1.- Erreserba bereziak erabilera orokorrekoak badira, horiek ematerakoan zuten helburua ziurtatu beharko du udalak; beraz, erreserba horiek ezin izango dituzte soilik ibilgailua jakin batzuek erabili, hau da, ezin izango da mugatu aparkaleku-txartelen gainontzeko titularrek bertan aparkatzeko duten eskubidea.

estudiará las necesidades de la persona con movilidad reducida, conjugándolas con las exigencias urbanísticas y las necesidades del tráfico.

De conformidad con dicho informe, el ayuntamiento procederá a señalar la plaza. El coste de dicha señalización correrá a cargo del Ayuntamiento. Las posteriores modificaciones correrán a cargo de la persona titular de la reserva.

4.- La concesión de la reserva se efectuará por Resolución de Alcaldía por un período máximo de cinco años, debiendo ser renovada a su conclusión, si se modificase el grado de minusvalía del titular de la reserva y/ o caducara o perdiera vigencia el permiso de conducción.

Las solicitudes de renovación se deberán de presentar al menos tres meses antes de la fecha de caducidad de la misma.

Las personas titulares de la reserva, deberán de comunicar al Ayuntamiento, en el plazo máximo de 15 días, cualquier variación de las circunstancias que motivaron su concesión.

5.- El ayuntamiento anotará las resoluciones adoptadas de concesión y denegación, renovación o revocación de las reservas especiales de estacionamiento en una base de datos, cuyo contenido estará protegido conforme a la normativa vigente en materia de tratamiento de datos personales.

### **Artículo 11.- Condiciones de uso y funcionamiento de las reservas especiales.**

1.- En las reservas especiales de uso general, el ayuntamiento deberá de garantizar la finalidad de su otorgamiento, sin que puedan ser utilizadas las mismas de forma exclusiva por determinados vehículos, limitando el derecho de estacionamiento del resto de titulares de tarjeta de estacionamiento.



**SORALUZEKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

Aparkatzeko gehienezko denbora mugatu ahal izango du Udalak, aparkamendua arautzeko zerbitzua arautzen duen ordenantzaren bitartez.

2.- Bide publikoan erreserbatutako aparkaleku-plazak udal zerbitzuek seinalatuko dituzte, nazioarteko irisgarritasun-ikurrarekin, bai horizontalean bai bertikalean.

Gainera, erabilera izenduneko erreserba bereziak eta pertsonalizatuak ibilgailuaren matrikula- zenbakiaz seinalatuko dira.

Erreserba horien diseinu eta trazadurako zehazpen teknikoek bete egin beharko dute honako araudian, indarrean dagoenean, zehaztutakoa: hiri-inguru, espazio publiko, eraikuntza eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzen inguruko arau teknikoak onartzen dituen araudian, hain zuzen ere.

3.- Udalak edozein erreserba-mota kentzeko edo beste leku batera eramateko ahalmena izango du, behar ez bezala erabiltzen badira edo beste behar batzuk badaude -obrak edo hiri trafikoaren bideratze egokia, esate baterako-, aurreko kontsezioak eta haren baldintzen interesatuaren aldeko eskubiderik sortu gabe.

### **III.TITULUA. ZIGOR ARAUBIDEA**

#### **I KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK, ZIGORRAK, KAUTELAZKO NEURRIAK ETA ERANTZULEAK**

##### **12.artikularia.- Arau-hausteak.**

1.- Arau-hauste administratiboa izango da Ordenantza honek jasotzen dituen xedapenak ez betetzea eta bertan ezartzen diren debekuak urratzea.

2.- Aplikatu beharreko berariazko araudi sektorialik izan ezena, Alkatetza-Lehendakaritzak edo hark eskuordutako

El Ayuntamiento podrá limitar el tiempo máximo de aparcamiento mediante ordenanza reguladora del servicio de estacionamiento regulado.

2.- La señalización en la vía pública de las plazas de estacionamiento reservadas se efectuará por los servicios municipales con el símbolo internacional de accesibilidad tanto en el plano horizontal como vertical.

Las reservas especiales de uso nominal personalizadas se señalarán además mediante el número de matrícula del vehículo.

Las especificaciones técnicas del diseño y trazado de estas reservas cumplirán lo establecido en la normativa en vigor por la que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

3.- El Ayuntamiento se reserva la capacidad de suprimir o trasladar las reservas de todo tipo, en función de usos indebidos o necesidades sobrevenidas, tales como obras o el buen desenvolvimiento del tráfico urbano, sin que su anterior concesión y los términos de la misma se considere hayan generado derechos a favor de la persona interesada.

### **TÍTULO III. RÉGIMEN SANCIONADOR**

#### **CAPÍTULO 1. INFRACCIONES, SANCIONES, MEDIDAS CAUTELARES Y RESPONSABLES**

##### **Artículo 12.- Infracciones.**

1.- Constituye infracción administrativa el incumplimiento de las disposiciones que contiene esta Ordenanza y la vulneración de las prohibiciones que en ella se establecen.

2.- En defecto de normativa sectorial específica aplicable, las infracciones de lo dispuesto en esta Ordenanza serán

Organoak zigortuko ditu Ordenantza honetan xedatutakoaren arau-haustek, Titulu honetan zehaztutakoaren arabera, legediak ezarritako mugen barnean, eta kasu bakoitzean egon daitezkeen erantzukizun penalei kalterik egin gabe.

3.- Ibilgailuak aparkatzeko araubidearen inguruko arau-haustek zigortu ahal izateko, honako hauek jarraitu dira: martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilea-Trafikoari Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatua onartzen duena; azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretua-Zirkulazioari buruzko Araudi orokorra aparkamendua arautzeko udal zerbitzuaren ordenantza, edo bestela horien orde zegoen araudia.

Aurreko araudian oinarrituta, mugikortasun urriko pertsonentzako erreserbetan baimendu gabeko ibilgailuak aparkatuz gero, dagokion zigorra jarriko da, behar ez den lekuan aparkatzeagatik, eta ibilgailua garabiak eramango du.

Ondorio horretarako, baimendu gabeko ibilgailuentzat hartuko da bai aparkaleku-txartelik ez duena, bai aparkaleku-txartel baliogabea duena.

### **13.artikulua.- Arau-hauste motak.**

1.- Arau-haustek honela sailkatuko dira: arinak, larriak eta oso larriak.

2.- Arau-hauste arinak dira Ordenantza honetan jasotako arauen aurka egindakoak, betiere hurrengo ataletan larri edo oso larri gisa kalifikatzen ez direnean.

3.- Arau-hauste larriak dira Ordenantza honetan horrela tipifikatuta dauden jokabideak edo portaerak, honako hauei buruzkoak:

sancionadas por la Alcaldía-Presidencia u órgano en quien delegue, de acuerdo con lo establecido en el presente Título, dentro de los límites que la legislación autoriza y sin perjuicio de las responsabilidades penales a que hubiera lugar en cada caso.

3.- Las infracciones relativas al régimen de estacionamiento de vehículos serán sancionadas con arreglo a lo dispuesto en el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad Vial, en el Real Decreto 1428/2003, de 21 de noviembre, por el que se aprueba el reglamento General de Circulación y en la ordenanza Municipal reguladora de las infracciones de tráfico y ordenanza del servicio municipal de estacionamiento regulado o normativa que les sustituyan.

En base a la anterior normativa, el estacionamiento de vehículos no autorizados en las reservas concedidas para personas con movilidad reducida dará lugar a la correspondiente sanción por estacionamiento indebido así como a la posibilidad de retirada del vehículo por la grúa.

A tal efecto, se considerará vehículo no autorizado, tanto el que no disponga de tarjeta de estacionamiento, como el que disponga de tarjeta de estacionamiento no válida.

### **Artículo 13.- Clases de infracciones.**

1.- Las infracciones se clasificarán en leves, graves y muy graves.

2.- Son infracciones leves las cometidas contra las normas contenidas en la presente Ordenanza que no se califiquen expresamente como graves o muy graves en los apartados siguientes.

3.- Son infracciones graves las conductas tipificadas en esta Ordenanza referidas a:



**SORALUZETKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

a).- Ez jakinaraztean Soraluzeako udaleko gizarte zerbitzuei helbidea aldatu egin duela (nahiz udalerraren barruan, nahiz udalerritik kanpo) edo titularraren egoera pertsonalean aldaketa egon dela, betiere aldaketa horrek mugitzeko gaitasunean hobekuntza dakarrenean.

b).- Ibilgailua iristekoan edo irteterakoan titularrak ez dagoenean erabiltzea aparkaleku-txartela.

c).- Aparkaleku-txartelaren kopia modu okerrean erabiltzea.

d).- jatorrizko aparkaleku-txartelaren kopia erabiltzea.

e).- Udaltzaingoko agenteek txartelen eta aparkaleku-erreserben kontrol eta zaintzarako beharrezko egiaztapenak egin behar dituztenean, ez laguntzea edo/eta horiek egiten ez uztea.

f).- Iraungitako txartela erabiltzea.

g).- Hiru arau-hauste arin egitea urtebeteko epean.

4.- Oso arau-hauste larriak dira honako jokabide edo portaera hauek:

a).- Aparkaleku-txartela lagatzea horren titularrak garraiatzen ez duen beste ibilgailu baten erabiltzaile edo jabeari.

b).- Txartel manipulatu, faltsutua, ezeztatua edo hildako pertsona batena erabiltzea.

c).- Datu faltsuak edo okerrak nahita ematea aparkaleku edo erreserba berezien txartelak eskatzerakoan, txartela emateko orduan funtsezko datuak izan direnean.

Arau-hauste honek berekin eramango du

a).- No comunicar a los servicios sociales del Ayuntamiento de Soraluze el cambio de titular (bien sea a otro municipio o dentro del mismo municipio) o la modificación de las circunstancias personales del titular cuando tal variación suponga una mejora en la capacidad de movilidad.

b).- La utilización de la tarjeta de estacionamiento cuando a la llegada o salida del vehículo no acceda el titular de la misma.

c).- La utilización incorrecta de réplicas de las tarjetas de estacionamiento.

d).- El uso de copias de tarjeta original de estacionamiento.

e).- No colaborar y/o permitir a los agentes de la Policía Local realizar las comprobaciones pertinentes para el control y vigilancia de las tarjetas y de las reservas de estacionamiento.

f).- La utilización de una tarjeta caducada.

g).- La comisión de tres infracciones leves en el plazo de un año.

4.- Son infracciones muy graves las siguientes conductas:

a).- La cesión de la tarjeta de estacionamiento a persona usuario o propietaria de un vehículo distinto a aquel que transporte al titular de la tarjeta de estacionamiento.

b).- La utilización de una tarjeta manipulada, falsificada, anulada o de una persona fallecida.

c).- La comunicación de datos falsos o intencionadamente erróneos en las solicitudes de la tarjeta de estacionamientos o de reservas especiales, cuando han sido esenciales para la concesión de las mismas.

Esta infracción llevará aparejada la

txartel edo aparkaleku erreserbatuaren kautelazko etenaldia, horien eskaera-prozesu osoa berrikusi arte.

d).- Ordenantza honen aurkako arau-hausteengatik balioa etenda duten txartelak erabiltzea.

e).- Aparkaleku-txartela ez entregatzea, txartela eteteko zigor irmoa bete behar denean.

f).- Hiru arau-hauste larri egitea urtebeteko epean.

#### **14. artikulua.- Zigorrak.**

1.- Zigorrak ezartzerakoan, arau haustea ekarri duen ekintzaren larritasunaren arabera izan beharko da aplikatutako zigorra. Horrenbestez, aplikatu beharreko zigorraren maila zehazteko, kontuan hartuko da bereziki nahita edo behin baino gehiagotan egin duen, eragindako kalteen izaera zein den eta berrerortzerik izan den, hau da, urte batean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago izan duen, betiere erabaki irmoaren bidez halaxe adierazi denean.

2.- Arau-hauste arinengatik 90€ arteko isuna jarriko da, arau-hauste larriengatik 91tik 300eurora arteko isuna jarriko da, eta oso arau-hauste larriengatik 301etik 600eurora arteko isuna jarriko da.

3.- Arau-hauste larrien kasuan, gainera, mugikortasun urriko pertsonentzako aparkaleku-txartela eta-horrela behar badu-aparkaleku-erreserba eteteko zigorra ezarri ahal izango da, gutxienez hiru hilabeterako eta gehienez sei hilabeteraino.

4.- Arau-hauste oso larrien kasuan, mugikortasun urriko pertsonentzako aparkaleku-txartela eta-hala behar badu-aparkaleku-erreserba eteteko zigorra ezarri ahal izango da, gutxienez sei hilabeterako eta gehienez urtebeteteraino.

suspensión cautelar de la tarjeta o estacionamiento reservado, hasta la revisión de todo el procedimiento de solicitud de las mismas.

d).- Hacer uso de tarjetas que han sido suspendidas por motivo de infracciones a esta Ordenanza.

e).- La negativa a la entrega de la tarjeta de estacionamiento en cumplimiento de la sanción firma de suspensión de la misma.

f).- La comisión de tres infracciones graves en el plazo de un año.

#### **Artículo 14.- Sanciones.**

1.- En la imposición de sanciones se deberá guardar la debida adecuación entre la gravedad del hecho constitutivo de la infracción y la sanción aplicada, considerándose especialmente para la graduación de la sanción a aplicar, la existencia de intencionalidad o reiteración, la naturaleza de los perjuicios causados y la reincidencia, por comisión en el término de un año de más de una infracción de la misma naturaleza cuando haya sido declarado por resolución firme.

2.- Las infracciones leves serán sancionadas con multa de hasta 90€, las infracciones graves serán sancionadas con multa de 91 a 300€ y las infracciones muy graves serán sancionadas con multa de 301 a 600€.

3.- En el caso de las infracciones graves, podrá imponerse, además, la sanción de suspensión de la tarjeta de estacionamiento, y en su caso de reserva de estacionamiento para personas con movilidad reducida por el tiempo de tres meses y máximo de hasta seis meses.

4.- En el caso de infracciones muy graves, podrá imponerse, además, de suspensión de la tarjeta de estacionamiento, y en su caso de la reserva de estacionamiento para personas con movilidad reducida por el tiempo mínimo de seis meses y



**SORALUZETKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

---

5.- Arau-hauste oso larrietan berreroriz gero, aurrekoez gain, mugikortasun urriko pertsonentzako aparkaleku-txartela eta hala behar badu-aparkaleku-erreserba eteteko zigorra ezarri ahal izango da, gutxienez urte beterako, eta gerta liteke gehiago berri ez izatea.

6.- Ordenantza honen aurkako arau-hausteengatik txartela eteteko zigor irmoa bete behar denean, mugikortasun urriko pertsonentzako aparkaleku-txartela entregatu nahi ez badu, horren eraginez gerta liteke gehiago berri ez izatea.

**15. artikulua.- Kautelazko neurriak.**

Trafiko zaintzeko ardura duten agintari-agenteez egiaztatu eta berehala konfiskatu ahal izango dituzte faltsututako txartelak, jatorrizkoen fotokopiak, manipulatuak, baliogabetuak, etenak, iraungiak edo hilik dauden titularrenak.

Egindako arau-haustearen frogatzat hartuko dira horiek, eta tramitatuko den espediente administratibo edo judizialari batuko zaizkio.

**16. artikulua.- Erantzuleak.**

Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera arau-hausteen erantzunkizuna, zuzenean, aparkaleku-txartelaren edo erabilera izenduneko erreserba bereziaren titularrena izango da.

**II. KAPITULUA. PROZEDURA**

**17. artikulua.- Zigor-prozedura.**

Zigorrak ezartzeko orduan, arlo honetan zigortzeko ahalmena gauzatzeko ezarritako dagoen legezko edo erregelamenduzko prozeduraren arabera jokatu da

máximo de hasta un año.

5.- En el caso de reincidencia en infracciones muy graves, podrá imponerse, además, la sanción de suspensión de la tarjeta de estacionamiento, y en su caso de la reserva de estacionamiento para personas con movilidad reducida por el tiempo mínimo de un año, pudiendo dar lugar a la imposibilidad de renovación de la misma.

6.- Como consecuencia de la negativa a entregar la tarjeta de estacionamiento por infracciones cometidas contra la presente Ordenanza que conlleven la retirada de la tarjeta de estacionamiento, se podrá proceder a la no renovación de la misma.

**Artículo 15.- Medidas cautelares.**

Los agentes de la autoridad encargados de la vigilancia del tráfico, podrán proceder a la incautación inmediata de aquellas tarjetas que se comprueben falsificadas, fotocopias de las originales, manipuladas, anuladas, suspendidas, caducadas o titulares fallecidos.

Las mismas será consideradas como prueba de la infracción cometida y se unirán al expediente administrativo o judicial que se tramite.

**Artículo 16.- Responsables.**

La responsabilidad por infracciones a lo dispuesto en esta Ordenanza recaerá directamente en el titular de la tarjeta de estacionamiento o reserva especial de uso nominal.

**CAPÍTULO II. PROCEDIMIENTO**

**Artículo 17.- Procedimiento sancionador.**

La imposición de sanciones se ajustará al procedimiento legal o reglamentariamente establecido para el ejercicio de la potestad sancionadora en esta materia.



## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Udalerrri honetan, mugikortasun murriztua dutenentzako ibilgailuak aparkatzeko, ordenantza honek ibilgailu hoerien titularrei aitortzen dizkien eskubideak honako hauek izango dituzte; nazio-lurraldean bizi diren herritar espainiarrek, eta Europar Batasuneko gainontzeko estatukideetakoek, baldin eta aparkatze-txartel baten jabe badira eta txartel hori baldin bada eredu komunitariokoa-hain zuzen ere, Europako Komunitateko estatukideei emandako Gomendioan, Europar Batasuneko Kontseiluak 1998ko ekainaren 4an onartu zuen Gomendioan, xedatutakoaren arabera eta dagozkion agintari eskudunek emandakoa.

## **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamabost egunera sartuko da indarrean.

## **DISPOSICIÓN ADICIONAL**

Los/as ciudadanos/as españoles que residan en territorio nacional y los/as de los restantes países de la Unión Europea, que sean titulares de una tarjeta de estacionamiento, con arreglo al modelo comunitario, según lo dispuesto en la Recomendación a los estados miembros de la Comunidad Europea, aprobado por el consejo de la Unión Europea el 4 de junio de 1998, expedida por las respectivas autoridades competentes, gozarán en este término municipal de los derechos reconocidos por la presente Ordenanza a los titulares de estacionamiento de vehículos para personas con movilidad reducida.

## **DISPOSICIÓN FINAL**

La presente Ordenanza entrará en vigor a los quince días de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.